



besaldi

Enplegu eta inklusio
politiken ebaluazio organoa
Órgano de evaluación de las
políticas de empleo e inclusión



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO

1/2024
Ebazpena,
irailaren 13koa,
Enplegu- eta
inklusio-
politiken
ebaluazio-
organoaren
titularrarena,
"Besaldi" marka
erabiltzeari
buruzkoa.

I. Aurrekariak

Lehena.- Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legeak inklusioaren alorreko ebaluazio-, ikerketa- eta berrikuntza-organoa sortzen du.

Bigarrena.- Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legeak aurrekoa aldatzen du, bestek beste: organo horren izenari dagokion atala, zeinak izen hau hartzen baitu: "Enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazio-organoa".

Hirugarrena.- Enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazio-organoa kide bakarreko organo gisa sortzen da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egitura hierarkikoari adskribatzen zaio, inklusioaren alorreko eskumena duen sailari hain zuzen, bertan integratu gabe, jarduteko independentzia funtzional osoa duela.

Laugarrena. - Otsailaren 13ko 14/2024 Dekretuaren bidez, organo horren titularra izendatu zen, eta jarduerari ekin zitzaion.

II. Oinarriak

Lehenengoa.- Enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazio-organok izen labur eta bereizgarri bat izatea zergatik den egoki

Enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazio-organoa jarduten hasi zenetik, agerian geratu zen nolako zaila den eguneroko funtzionamendurako enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazio-organoa izen osoa erabiltzea.

Ordenamendu autonomikoan politika publikoak ebaluatzeko antzeko organorik ez dagoenez, organo honek dituen independentzia-



besaldi

ezaugarridunik, egokia da izen bereizgarri bat ematea, hasieratik edonork erraz ezagut dezan.

Horretaz gain, oinarri honetan aipatzen den izenaren erabilerak osatu egingo du 14/2022 Legean aurreikusitakoa, eta ezingo du inola ere ordeztu.

Bigarrena.- "Besaldi" izena erabiltzeari buruz

"Besaldi" terminoak neurri-unitate bati egiten dio erreferentzia (gazelaniaz, brazada edo braza esan nahi du); gaur egun ez da erabiltzen, baina tradizionalki hainbat lan- eta gizarte-jardueratan erabili izan da. Sinbolikoki, neurketak ebaluaziora eramane gaitzake eta, giza gorputzari erreferentzia eginez, pertsona ardatz duen giza eskalako jarduera batera.

Azken batean, enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazio-organoren zereginaren funtsezko bi printzipio erakusten dizkigu izenak: alde batetik, kontraste edo neurketa zorrotzari egiten dio erreferentzia, eta, bestetik, ebaluatutako politiken, zeinak pertsonak baitituzte hartzaile, izaera komunitarioari behar duen arreta ematen dio.

"Besaldi" izena erabiltzeak ez dakar gatazkarik, dakigunaren arabera ez baita erabili beste organo edo entitate publiko zein pribatu bat izendatzeko.

Hirugarrena.- Eskumena

Enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazio-organoko titularrak eskumena du ebazpen hau emateko, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 149. artikuluan ezarritakoaren arabera, ulertzen baita hari dagokiola manu horrek ezartzen dituen eginkizunak eta haiei lotutako eta beste organo bati esleitu gabeko beste eginkizun osagarri batzuk gauzatzea.

Horrenbestez, honako hau

III. Ebazten dut:

Lehenengoa.- "Besaldi" izena erabil dadin onartzea enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazio-organoa aipatzeko, organo horri buruzko idatzizko aipamenetan.

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen IX. tituluko II. kapituluaren aurreikusitako izenaren aurretik erabiliko da, biak batera eta elkarrekin, jarraian adierazten den bezala

"Besaldi"
Órgano de evaluación de las políticas
de empleo e inclusión.
Enplegu- eta inklusio-politiken
ebaluazio-organoa.

Bigarrena.- "Besaldi" marka erregistratzeko izapideak abiaraztea, eta horretarako eskaera egitea Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Eusko Jaurlaritzaren gardentasunaren atarian argitara dadin agintzea.